

906. ZENBAKIDUN
ALKATETZAREN DEKRETUA

Planteatutako gaia

Fotokopiagailuen hornidura 2009. Prozedura negoziatua. Behin-behineko esleipena.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2009ko ekainaren 17an Tokiko Gobernu Batzarrak 9. erabagi bidez, hornidura honetarako baldintza pleguak onartu eta deialdia zabaltzea onartu eban.

Bigarrena: Prozedura negoziatua publizidade barik erabili da, hiru enpresa gonbidatuz:

LANKIDEGO LANTALDE (RICOH)
COFIPAPEL (TOSHIBA)
SISTEMAS DE OFICINA DE VIZCAYA-5 SA (CANON)

Epearen barruan aurkeztu dabez euren eskaintzak eta abuztuaren 6an Udal Informatikoak emondako txostenean, aurkeztutako eskaintzak baldintza plegu teknikoetara egokitzen dira.

Hirugarrena: Negoziaketa prozesua burutu ondoren, eskaintza egokituak eskatu jake lizitatzaleei eta baldintza pleguetako formulak aplikatu ondoren, zera daukagu:

2009-52 KONTRATUA. FOTOKOPIAGAILUEN HORNIDURA. ESKAINTZA PUNTUAKETA									
	prezioa		hobekuntzak						PUNTUAKETA
	MAKINA	KOPIAK	energia kontsumoak	zarata mailak	ergonomia	hizkuntza	abiadura	bestelakoak	
canon-Sis.Ofic.Vizc 5	38,96	19,43	6,00	1,93	0,00	0,00	10,00	10,00	86,33
toshiba-Cofipapel	39,71	20,00	3,10	1,98	0,00	0,00	0,00	10,00	74,80
ricoh-lankidego	40,00	18,27	5,57	2,00	0,00	0,00	6,00	10,00	81,85

Guzti honen arabera, eskaintza hoberena SISTEMAS DE OFICINA DE VIZCAYA-5 SA enpresak aurkeztutakoa da.

Argudioak

Lehenengoa: Kontsignazino nahikoa dago gastu honeri aurre egiteko.

Bigarrena: Eskaintza hobereena SISTEMAS DE OFICINA DE VIZCAYA-5 SA enpresak aurkeztu dau puntuaketa altuena lortuz, eta behin-behineko esleipena honen alde egin beharra dago, baldintza pleguetan xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena: Gainontzeko lizitatzaileri, jarritako behin-behineko bermea itzultzea 30/2007 Sektore Publikoko Kontratuen Legeak xedatu bezala.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, honako hau erabagi dot:

LEHENENGOA: 2009-52 fotokopiagailuak hornitzeko kontratua, SISTEMAS DE OFICINA DE VIZCAYA-5 SA enpresaren aldeko behin-behineko esleipena onartzea. Prezioa: 16.842,55€ gehi BEZ. Danera: 19.537,36€.

BIGARRENA: SISTEMAS DE OFICINA DE VIZCAYA-5 SA enpresari beharrezko agiriak eta behin betiko bermea aurkezteko, hamabost (15) eguneko epea emotea. Behin betiko bermea, esleipen prezioaren % 5a BEZ barik izango da, hau da: 842,13€.

HIRUGARRENA: Erabagi honen barri lizitatzaileri emotea eta kontratistearen profilean argitaratzea hamar (10) eguneko epearen barruan, jagokozan alegazioak aurkeztu daien, baldintza plegu administratiboetako 24. atalean azaldu bezala.

Bermeon, 2009ko abuztuaren 6an
JARDUNEKO ALKATEA

NIRE AURREAN
JARDUNEKO IDAZKARIA